



Sarritan egona da Kurdistanen eta ondo ezagutzen du hango egoera. Eta Euskal Herriko hainbat sektorerengan gaiak sortzen duen interesa kontuan hartuta, hango errealtatea era erraz eta xumean euskal irakurleari gerturatzeko idatzi du liburua.

Nolatan liburua?

Kazetari guztioi gertatzen zai-
gun zerbait da, egunean egu-
neko zurrunbiloan ibilita do-
zenaka istorio kanpoan
geratzea, astirik edo lekurik ez
dagoelako. Eta badira gai ba-
tzuk arnasa luzeagoko idazke-
ta, irakurketa eta, oro har, hur-
bilketa behar dutenak. Ez dira
mundu guztiarentzat izango,
noski, denok ez dugu interes
bera izango gai guztietan, bai-
na esango nuke formatua be-
ra, arnasa luzeagoko testu bat
izatea gai zehatz bati buruz,
kazetaritzaren baitan baina
beharrezko denbora eta dis-
tantzia pixka bat hartuta, asko
estimatzen dela. Kurdistanen
kasuan, badago interes hori
hainbat sektoretan: interna-
zionalismoan, euskalgintzan,
feminismoan eta beste hain-
bat ertzetatik begiratzen zaio.
Euskaraz, zorionez, lan batzuk
egin dira, euskaraz sortuta edo
egile kurduak euskaratuta,

**URTZI
URRUTIKOETXEA**
KAZETARIA

Gauza bat argi du. «Berdin da» herri gisa
zure eskubideak ukatzen dizkizuna
«herrialde arabar sozialista den, teokrazia
persiarra edo NATOk kide turkiarra».

D.L.

«Iranen eta
Turkian
erabateko
zapalkuntza
jasaten dute
kurduak»

baina berariaz Kurdistanen
erabat zentratzeko ahaleginik
ez da izan, nik dakidala. Eta li-
burua egiteko aukera aipatu
zidatenean, gaiaz nolabaiteko
interesa edo jakin-min hutsa
daukanak nondik hasi izan de-
zan, bada, berehala esan nuen
baietz. Ahalegin txiki bat da
Kurdistango errealtate handi
eta konplexua ahalik eta erraz
eta xumeen ekartzeko euskal
irakurleari. Lehendik gaian
murgilduta dagoenarentzat
ere badu ekarpenik, nire ustez,
baina, batez ere, lehen aldiz
hurbiltzen den horrengan
pentsatuta dago, Ekialde Hur-
bilean, Kurdistan eta kurduak
protagonista dituzten istorio-
etan abiapuntu bat izateko.

**Askotan eta aspalditik egon
zara Kurdistanen.**

Duela hogeitaz urte Berlinen bizi
nintzela ezagutu nituen lehen
kurduak, aurretik Bilbo ingu-
ruan Kurdistanen aldeko tal-
dearekin harremanetan egon
arren. Handik gutxira egin
nuen lehen bidaia Turkiara eta
Turkiaren mendeko Kurdistana-
nera, eta hurrengo urteetan
nazio horretako txoko gehie-
netatik ibiltzeko aukera izan
nuen, Sirian, Iraken, Iranen,
baita Kaukason ere. Eta dias-
poran, noski, Europako he-
rrialde gehienetan komunita-
te kurdu garrantzitsuak
baitaude, ezkerreko alderdie-
tako ordezkariak ere bai zen-
bait herrialdetan, Eskandina-
vian esaterako. Azken
urteotan ez dut hainbeste joa-
terik izan, baina etengabe na-
go kurduekin harremanetan.
Egunotan bertan, Turkiaren
mendeko kurduen hizkuntza
eskubideak errespetatzeko
ebazpen batekin egon gara la-
nean, eta Iranen gertatzen ari
diren protestei elkertasuna
adierazteko beste batean.

**Zein da egungo egoera Kur-
distaneko herrialde ezberdi-
netan?**

Erabateko zapalkuntza egoera
dute Iranen eta Turkian. Ira-
nen kasuan, heriotza zigorra-
ren erabilera izugarria da, do-
zenaka kurdu, balutx eta, oro
har, aurkari exekutatzen di-
tuzte urtero. Turkia formalki
demokrazia bat da, hautes-
kundeak dituzte, baina kur-
duen hitzak eta botoak ezer
gutxi balio du: udal hautes-
kundeetan erabateko gehien-
goa lortu duten udalerrietan
ere, aste gutxira kargugabetu
edo espetxeratzen dituzte or-
dezkariek, eta Ankarak inposa-
tzen ditu udalak. 2015eko bake
prozesuaren amaieratik erabat
gogortu dira neurriak, Selaha-
ttin Demirtas bezalako buru-
zagi errespetatuak preso man-
tentzen dituzte, Europako
Giza Eskubideen Auzitegiak
ere libre behar duela agindu
arren. Siria eta Irakeko kasuan,
kurduak burujabetasun modu-
ko bat lortu dute, baina Iranen
eta, batez ere Turkiaren itzala
izugarria da: Ankarak base mi-
litarrek ditu Irakeko Kurdistana-
ren, eskualdearen zati handie-
na kontrolatzen duen KDP
alderdia erabat menderatuta
dauka, eta bertako kurduen ar-
tean etsipena da nagusi, ustel-
keriaren eta klientelismoaren
ondorioz. Siriako kurduak, Ro-
javan, lortu duten guztia izu-
garria izan da, mundua lilura-
tu du, baina horren aurka
jotzen du ia egunero Turkiak
drone bidez bonbardatzen.
Pentsa zer den horrelako leku
batean bizitzea, edozein une-
tan bonbardaketa bat gerta
daitekeela jakitun.

**Zer espero duzu kurduak ai-
tzindari diren Irango teokra-
ziaren aurkako matxinada
feministari buruz?**

”

Matxinada ederra ari da izaten, mundu osotik elkartasuna biltzen ari da, eta oso egoera anker bat azaleratzen ari da. Hori esanda, erregimenaren oldarra lehen ere ezagutzen dugu: Koyan, Iraken mendeko Kurdistanen, alderdi kurduak dituzten baseak bonbardatu dituzte egunotan, eta ia 20 lagun hil. Protestetan hildakoen kopurua ere ehunera ari da hurbiltzen. Eta beldur naiz, halako batean are zapalkuntza odoltsuagoa ez ote den etorriko. Tamalez hori gertatzen bada, espero dut horrenbesteko miresmena adierazi duten herrialdeek ere elkartasun bera izatea Irandik ihesi doazenean, Mediterraneoko eta beste-lako bide arriskutsuak hartzen ibili gabe.

Zer esango zenioke kurduen borroka geopolitikaren eta arabiarzaletasunaren aldaretan sakrifikatzeko prest dagoen euskaldun bati?

Duela 25 urte “Good Kurds, Bad Kurds” dokumentala egin zuen Kevin McKiernan estatu-batuarrak. Bere herrialdearen hipokrisia salatzen zuen: Saddam Husseinen aurkako kurduak biktimak ziren eta lagundu behar zitzairen, baina Turkiaren aurkakoak terroristak, Turkia NATOn dagoenez. Tamalez, ezkerretik antzeko irakurketa sinplistik ere egi-ten dira, borroka bakoitzaren zilegitasuna bere aurkariaren rol geopolitikoaren arabera baloratuz. Mundua konplexua da, badakigu hori, eta kurduak inork baino hobeto. Siriako gatazkan 2014-15ean gertatu zen Washingtonen jarrera aldaketa, gero eta jarrera jihadistagoak zituzten taldeei lagundu beharrean kurduak aliatu ho-beak zirela ikusi zuten, Sinjareko yazidien genozidioaren

Kurduen esamolde bat da hau: «Itotzen ari bazara eta eskua ematen badizute, ez zara hasten begira esku hori krokodilo batena den»

ostean eta Kobaneren defentsan. Baina kurduak hasieratik jakin dute AEBen babesa haien interesen arabera zela. Errusiak saldu zituenean Turkiaren mendeko jihadistek Afrin hartzeko, edo Donald Trumpek ezer egin ez zuenean Turkiaren eraso geldiarazteko 2019an, bete-betea egin zuten topo errealitate horrekin. Milaka gaztek eman dute bizia Mendebaldetik joandako jihadisten aurka borrokan, baina gero inork ez du ezer jakin nahi izan atxilotutako milaka jihadista horiei buruz, kurduen bizkar geratu da hori. Irakeko gerra piztu zenean, entzun zen: ‘Nahiko genukeen

Suitza edo Eskandinaviako herriren bat etorri izana gure alde, baina AEBak izan ziren, eta gure aukera baliatu genuen’. Behinola esan zidaten legeak: ‘Itotzen ari bazara eta eskua ematen badizute, ez zara hasten begira esku hori krokodilo batena den’. Errealitate konplexuak dira, noski, ziurrenik Irango protestetan interes handia izango dute orain AEBek, Europak zein Israelek. Baina errealitate geopolitiko horrek kentzen dio legitimitaterik protestan irteten diren milaka emakume kurdu eta irandar ausart horiei? Eta Euskal Herritik begiruta, edozein euskaltzalek, aber-

tzalek, sinpatia izan behar du gure hizkuntzaren antzeko errealitatearekin topo egiten duenarekin. Aipatu dut diaspora handiak daudela Europan, baina euskaldunok beti dute konexio berezi bat, hizkuntzaren eta hizkuntzaren zapalkuntzaren memoriatik. Alemanian zaila da ulertzea zer-nolako emozioa dakarren gurasoen artean eskola erdiklandestino bat sortu eta umeak kurdueraz entzutea, eta hori berdina da eskola Sirian, Iranen zein Turkian sortzen duzun, eta debekatzen dizuna herrialde arabiar sozialista den, teokrazia persiarra edo NATOko kide turkiarra.



Argazkiak: Urtzi URRUTIKOETXEA